

Goi
Mailako

Arte
plastikoak
eta diseinua

Altzarigintzako goi mailako teknikaria. Ekodiseinua



Nafarroako
Gobernua  Gobierno
de Navarra



Fondo Social Europeo
Europako Gizarte Funtza

El FSE invierte en tu futuro
EGFk zure etorkizunean inbertitzen du

UNIÓN EUROPEA
EUROPAR BATASUNA

Altzarigintzako goi mailako teknikaria.

Ekodiseinua

Zure etorkizuneko bizibidea

Ziklo hezigarri hau amaitzen duzunean kalifikatuta egongo zara hurrengo jarduera profesionalak garatzeko:

Berak lan egiten duen enpresaren eta goragoko mailako beste profesionalen arteko harremanetan solaskide aritzea

Altzariak taxutzeko ideia berriak aurkeztea edo produkzio prozesuko arazo zehatzak konpontzea, profesional lokabe gisa diharduela

Lan-talde, estudio edo tailerretan lanak egitea, kudeaketa eta koordinazio lanak barne direla, hala dagokionean

Altzari tradizionalen mantenimendu lanak egitea, alderdi teknikoen eta artapenaren ardura hartuz, eta eredu historikoak berregitea

Altzari-diseinu berriak egitea, enpresaren filosofiara eta lehia-ezaugarrietara moldatuz

Prototipoak egitea, enpresa-sail baten barruan nahiz langile lokabe gisa diharduela

Maila honetako profesionalak langile lokabe gisa lan egiten ahal dute: nork bere enpresa, tailer edo estudioan. Orobat, soldatapean lan egin dezakete, beren zerbitzu iraunkorren beharra duten enpresetan, enpresa-sailen batean (sorkuntza-eredugintza-produkzioa).

KONTUAN HARTU BEHAR DUZUNA

Profesional hau altzarigintza enpresetan lan egiteko gaiturik dago:

- Etxeko altzariak.
- Bulegoko altzariak.
- Sukaldeko altzariak.
- Tapizgintza.
- Altzari osagarriak (lanparak, objektuak).
- Eredu historikoak artatzea eta berregitea.
- Dekorazioko estudioak eta dendak.

ZIKLOAREN MODULUAK

- Marrazketa artistikoa eta komunikazio grafikoa.
- Altzariaren historia.
- Geometria deskriptiboa.
- Ergonomia eta antropometria.
- Proiektuak eta metodologia: altzariak.
- Altzariak egiteko tailerra.
- Ikastetxeak diseinaturiko modulua.
- Lan prestakuntza eta orientazioa.
- Proiektu integratua.
- Prestakuntza praktikoa enpresa, estudio edo tailerretan.
- Amaierako proiektua.